

Udaleko langileen idatzia lan baldintzen negoziazioa eskatuz

piipilean

Soraluzeko Hamabostekaria 59. alea 2002ko azaroaren 22a



Gaztelupeko Hotsak DISKOAK ETA ZERBAIT GEHIAGO



**Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean**




GOL, S.A. Industriak

Sagar Erreka, 19 45 PK

20590 SORALUZE

Tfnoa. 943 75 21 00 / <http://www.gol.es>

Javier Alonso Zelaieta
Hortz klinika



*Mediku estomatologoa
434 zenb. kol.*

**Atxuri, 1 - 1. eskuma
Tfnoa 943 75 16 13**



Barra kargadore automatikoak
eta makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Mendiola Industrialdea 14-5

Tfnoa **943 75 18 91**

Faxa **943 75 24 58**

E - maila: etxehun@teletel.es

etxehun@euskaltel.net

20590 SORALUZE

Gipuzkoa



SAN ANDRES
Iturgintza

*Iturgintza, Gasa, eta
Berogailuak
Sukaldeak eta bainuak*

**Errebal kalea 2 behea
Tfnoa 943 75 16 46**



MENDIZABAL

OKINDEGIA

**Kalebarren,10
Telefonoa 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonoa 943 75 13 99
SORALUZE**



Erretziari laga leikixo

GORKA PRIETO

Erretzeari uzteak buru hauste bat baino gehiago ematen dio hainbat pertsonari. Erretzaile guztiok nahi izan dugu behin edo behin, edo sarritan, erretzeari uztea (kontrakoa esaten duenak ez du egia esaten), eta ez dugu lortu. Erretzaileen ehuneko portzentaia altu batek, bihar goizean ez erretzaile izanez esnatu nahi izango ote lukeen galderari baiezkua ematen dio. Eta zerk galerazten du hori horrela izatea bada? Inork ez zaitu zigarroa erretzera derrigortzen. Erretzeari uzteko zigarrorik gehiago ez piztea da gakoa, besterik gabe.

Orain dela 7 hilabete erretzaile ez-praktikantea naizela, hau da, erretzeari utzi niola. Egun batean, ohetik jaitzitez bat, ez erretzaile izatea erabaki nuen (horrelako errez). Eta konturatu nintzen egia zela, inork ez ninduela erre nezan derrigortzen eta neu izan behar nintzela hortaz konturatu behar zena, alperrik bait da inguruan mila pertsona erretzeari utz diezaiozun esaten jardutea, jokatzeko era horrekin erretzailea normalean beldurtu

egiten bait da, eta zigarro bat pizten du. (Seguraski erretzaile bazara, artikulo hau irakurtzen hastez bat, piztu duzu bat...)

Egunero pakete batetik gora zigarro erretzetik 0 zigarro erretzera pasatu nintzen, eta oso ondo gainera (jendeak ez sinestu arren). Ez nuen inolako 'tximurik' ezta dependientziarik izan, hori gehien bat psikologikoa delako (tabakuaren kasuan, hots). Batek baino gehiagok esango du ez nuela ohitura haundiegirik izango eta horregaitik izango zela hain erraza; ez da horrela ostera, ez bait dut nahi 12 urtean erretako zigarro kopuruaren kontua ateratzerik ere... Ezta munduari zenbat bira emango nizkiokeen ere erre ditudan sos guztiekin.

Erretzeari utzi nionean horixe bera egin nuen, erretzeari utzi eta ez askotan egin ohi den akatsa: erretzeari uzten saiatu. Saiatu horrek badu bigarren zentzu ezkutu bat, hots, ez duela bermatzen lortuko duzunik.

Erretzaile askok esan ohi du ez dutela borondate edo boluntate indarririk erretzeari uzteko. Eta hori gezurra da. Berez ez da borondate indarririk behar, inork ez bait du inor erre dezan derrigortzen, hala ere, behar izango balitz nola esan daiteke norberak ez duela borondate indarririk, erretzea txarra dela jakin arren erretzen jarraitzen duenean. Hori ez baldin bada borondate indarra, zer izango da orduan?

Erretzeari uztea erreza da, baina horretarako jakin egin behar da nola. Nik, orain hain modan jarri den liburuaren bidez lortu nuen. Liburu honen sortzaileen erakundea egunotan Sorailuzen antolatu diren terapia taldeen erantzule dira. Informatu zaitetz Udalteixean, zure osasuna da jokoan dagoena, merezi du.

Bukatzeke, erretzaileen batek erretzeak dakarren onuraren bat baldin badaki edo aurkitu baldin badio ezer positiborik, mesedez esan dakidala, berriro erretzeari ekin diezaiodan.



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarte
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Sorailuze.
Telefonia 943 75 13 04

Zuzendaria: Gurutze Ariznabarreta

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Enara Agirre, Eguzkine Aldazabal, Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Jon Oregi, Oier Oregi, Eduardo Pombar, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno.

Publizitatea: Jon Basauri

Logotia: Jon Gabilondo
(943751304 tel.)

Banaketa: Pil-pilean **Ekoizpena:** 1.850 ale

Inprimategia: Gertu Koop. **Azala:** Aitor Madrid

Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid

I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkari esaneren eta iritzien erantzunkizunik.


Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORAILUZKO
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

Erreportaia

Orain 6-7 urte Gaztelupe tabernako blues eta poesiazko ordu txukien handitasunean gorpuztu zen ilusiozko singel amateurak bere bidea egin du eta gaur egun Euskal Herriko musika munduko erreferentziarik garrantzitsuen eta berezietako bat izatera heldu da Gaztelupeko Hotsak.



Nagore Sanz eta Ubane Uzin Gaztelupeko Hotsaken.

Agenda

Azaroaren 23an
80 URTETIK GORAKOEN
BAZKARIA
Izena emateko: Itxaropenan.

Azaroaren 22an
SANTA ZEZILIA EGUNA
Abesbatzaren emanaldia herriko
leku ezberdinetan.
Emanaldiaren ostean, azken
urteotan abesbatza parte hartu
dutenak afaria egingo dute
Txurrukan.

Azaroaren 30ean
PLAN PLIN PLAN IRTEERA.
Txuri Urdineko izotz pistara
(Donostia)
Antolatzailea: Soralezeko
Euskararen Aholku Batzordea

Abenduaren 4tik 21era
JULIO MENDIKUTEREN
ARGAZKI ERAKUSKETA
Polikiroldegiko
Erakusketa Aretoan
Antolatzailea: Kontrargi
Babeslea: Euskadiko Kutxa

Abenduaren 2an
"EUSKAL JOLASEN
BILDUMA KD ROM-A"
Hitzaldia.
Plaentxi Herri Ikastetxea,

Abenduaren 20an
"AKTION DIRECTE BIDE
MITIKOTIK KANADAKO
LABAN HANDIRA"
Diapositiba emanaldia.

Abenduaren 21ean
EZOZIKO AMA
ABESBATZAREN
EMANALDIA
20:00etan elizan.

Abenduaren 21ean
PAYASOAK
17:00etan frontoian.
Atxolin Guraso Elkarte.

OHARRA:
**PIL-PILEANEN HURRENGO
ALEA ABENDUAREN 20AN
KALERATUKO DA.**

Adi, gazte!



ESKAINTZAK

- ***Autoeskolako irakaslea** behar da, praktikak egiteko, Zizur Nagusian. Deitu telefono honetara: 948-18-96-70
- ***Komertzialak** behar ditu publizitate Donostiako enpresa batek publizitate salmantan aritzeko Donostian eta Hernanialdean. Euskaraz jakitea ezinbestekoa da, baita eskarmentua izatea ere. Interesatuok bidali kurrikuluma Donostiara, 1887 PKra azaroaren 27a baino lehen.
- ***Barnetegirako monitore hezitzaile bat bilatzen du** Sehaska Iparraldeko ikatolen elkarteak, bere Bernat Etxepare Lizeoak. Euskalduna izatea ezinbestekoa da eta Hezitzaile funtzioen betetze-ko gaitasun agiria (C A F M E) deiturikoa beharko duzu.
- ***Koordinatzaile bat kontratatuko du** Lekeitioko Udalak Udal kirol erakunderako. Interesatuok deitu 946034100 telefono-ra.
- ***Eguneko Menua zerbitzeko mahai zerbitzariak** asteleheneretik ostiralera behar dira. 943796010
- ***Sukaldaria** behar da taberna batean. 943790034
- ***Komunikabide/informatika sailerako arduraduna** behar da. Lanlekua Lasarte/ Andoain Topagunea (euskara elkartearen federazioa 946215816

LEHIAKETAK

- Literatura**
Irungo Argoiak Kultura elkarteak XII literatura lehiaketa antolatu du. Berezitasuna aukerakoa izango da: poesia, ipuina edo nobela.
Saria: 300,50 epea: abenduaren 15^a
- Bekak**
Euskarazko literatur sormenerako Joseba Jaka beka emango dituzte. Deitzailea. Euskalgintza elkarlanean. Baldintzak: aurreko urteetan horrelako bekarik jaso ez izana. Zenbatekoa: 7000 euro, beka bakoitzeko Epea. abenduaren 19^a. Informazioa: 943219427. E-maila: eef@jalgi.com

BESTELAKOAK

- Martxan dagoen **ileapaindegia errentan** edo salgai 943 76 52 47
- Euskarako edozein testu zuzentzeko** gertu nago. Itzulpenak ere egiten ditut 686 11 28 81
- Web orriak egiteko** gertu nago: 699240934
- Guineako oiloak salgai:** 12 euro 617 60 84 45
- Boxer arrazako txakurra**

Zorion agurrak



Ivan Ayora
Zorionak txapeldun!!!!
2002 - 11 - 30 7 urte
Segi horrela !!
Muxu bat
Etxekuen partez.



Marta Vidal
Zorionak pottola!!!!
2002 - 11 - 15
Txintxoia izan!!
Muxu bat
Etxekuen partez.



Aitor Oregi
Zorionak txapeldun!!!!
2002 - 11 - 20
Ondo pasa eguna!!
Muxu bat
Asun eta Joseren partez.



Leire Sololuze
2002-12-5 19urte
Zorionak guapisima!!
Mutirik gainerik
kendu ezinda zabiz.
Kuadrilakuen partez



Jon Agirre
2002-12-5 23urte
Zorionak tio bueno!!!
Zahartzen gabizela,
eh!
Etxekuen partez



Ihintza Garate
2002-12-24
Zorionak!!!!
Urtebetetxo egiten dituzun honetan.
Aita, ama, Ekaitz,
Olentzero eta senide guztien partez.



Mikel Alvarez
Zorionak !!!!
2002 - 11 - 26
Zorionak potxolo!!!
Asko maite zaituzten
Nerea, Arrate, Asier
eta beraien familien
partez.



Eduardo Pombar
Zorionak txapeldun!!!!
2002 - 3 - 3
Poooombar jaun txip txip
gorenak urtiak betetzen
dituala. Segi beti bezain
fin fin eta irrifarretsu
ehh...
Pil-pileneken partez.

Jaiotakua


Naiara Isabel Zarobe
Dos Santos 10-02

Zer irizten dotsazu?**Toki publikuetan erretzia debekatu bihar litzake?****Santiago Rascon****45 urte****SAPA ko langilia**

Lortu neban erretziari lagatzia. Hasieran ingurukuen keiak molestatzen zostan. Ondo iruditzen jata Estatu Batuetan jarri barri daben legia, izan be ez dao zertan erretzaile pasiborik egon eta hori laster helduko da hona.

**Emi Ramirez****18 urte****Tabernarixa**

Erretzen dot. Ez dosta molestatzen nere inguruan jendia erretzen egotiak Toki publikuetan erretzia debekatzia ez jata bape ondo iruditzen. Seguru nao Estatu Batuetako legia laster iritsiko dala hona be.

**Hilario Iturbe****82 urte****Jubilatua**

Nik ez dot erretzen eta nere etxian be ez. Ke asko baldin badao, molestatzen dosta pixkat. Nik uste dot, toki publikuetan erretzia libre izan bihar dala, eta ez dot pentsatzen Estatu Batuetako legia hona helduko danik.

**Maria Eugenia Arrazola****60 urte****Etxekoandria**

Gutxi baina erretzen dot. Nere etxekueri molestatzen dotse keiak eta usainak. Etxata ondo iruditzen toki publikuetan erretzia debekatzeko legia.

**Ander Bolunburu****15 urte****Ikaslia**

Erretzailia naiz. Toki publikuetan erretziari ondo iristen dotsat baina logikua iruditzen jata toki publikuetan erretzia debekatzia, erretzen ez daben jendiagaitxik. . Espero dot Estatu Batuetako lege berrixa, hona be ailegatzia.

**Teresa Ariznabarreta****35 urte****Loradendako saltzailia**

Nik laga notsan erretziari, nere senarrak erretzen dau. Keiak asko molestatzen dosta. Txarto iruditzen jata leku publikuetan erretzia. Uste dot Ameriketako legiak hemen be ipini biharko lirakela, eta pentsatzen dot poliki poliki iritsiko diala hona be.

Ugaitz Catalan/ Eneko Beretxiganaga

ITUR iturgintza

**Iturgintza, Gasa
Berogailuak
Sukaldeak eta Bañuak**



Santa Ana, 20 Behea
Tlfonoa: 943 75 12 41
Sakeleko tlfonoa: 639 17 96 96



BELARRAK

LORADENDA ETA BELARDENDA

EROSKETAK ETXERA DARAMATZAGU



Santa Ana, 2 behea
Tel.: 943 75 30 11
Eskukoa telfnoa: 646 43 90 40
20.590 SORALUZE

Ajenda 21 institutuan



Debarreneko Udalerriren Garapenerako Erakundea den Debegesak antolatuta, Agenda 21 izenez ezagutzen den egitasmoaren barruan, Soraluzeko institutuko gaztetxoei bideratutako eskola berezi batzuk eskeiniko dira datorren hilean hasita (dagoeneko aurkezpena egin dute). Zarauzko Arazi Ingu-rugiro Zerbitzua da eskola hauek ematearen arduraduna eta naturaren bio-niztasuna eta hirigintza alorrak izango dira landuko dituzten gaietako batzuk.


Autokarabana “salbuespen” egoera salatzeko



Joan zen asteazkenean, arratsaldeko 19:30etan, “Demokrazia Euskal Herriarentzat. Faxismoari aurre egin” lelopean autokarabana bat egin zen. Ekimen honekin, “gaur egun Euskal Herrian bizi den salbuespen egoera” salatu nahi izan zuten antolatzaileek.

Karakaterako seinalizazio falta

Kanpotar asko eta asko omen dira astebururo Karakatera bidean ezjakintasunez Zeleta, Boskoitxi edo Iriarte baserriko atarietara heltzen direnak. Karakatera lehenengo aldiz datorrenak, zuzen zuzen gora egiten omen dute Zeletako aldapan eta aipatutako baserrietako atarietan amaitzen omen dute bidearengatik galdezka. Udaltzaingoaren esanetan kalean ere asko omen dira Karakatera bidea nondik den galdetzen dutenak beharbada komeniko litzateke bidea hobeto seinalizatzea.



Nora bota pilak?



Azken hilabeteetan Debarreneko mankomunitateak zabor biltzeko kontenedoreei itsatsita egoten diren pilak batzeko hainbat ontzi erretiratu ditu. Mankomunitateko zabor biltzearen arduradunak esanetan, ontziak konpontzeko erretiratu dituzte eta laster jarriko omen dituzte berriz euren tokietan. Birtartean, herritarrei pilak gorde edo dendetako kutxetan botatzeko gomendatzen du arduradunak.

Omenaldia egin zioten “Txorta”ri



Joan zen igandean, ETako kide izan eta 1.996an ertzantzarekin izandako tiroketa batean hil zen Anjel Irazabalbeitia “Txorta” zenari omenaldia egin zioten bere senide eta lagunak. Karakaten bere omenez jarrita dagoen monolitoaren aurrean auresku bat dantzatu eta ondoren idatzi bat irakurri zuten, Euskal Herria “aske” ikusteko itxaropena azaltzen zuena. Astelehenean enkartelada ixil bat egin zen Gila zubian.



HNOS. BENITO ANAIAK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)



PASCUAL CHURRUGA, s.a.

Hotzian eta beruan jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461

E-mail: general@pascualchurruga.com

Errekalde 21 20590 SORALUZE

Udaleko langileek lan baldintzak negoziatzeko eskakizuna egin diote Udalarari

Soraluzeko Udaleko langileek idatzi bat kaleratu dute Soraluzeko udal plenoari eta alkate jaunari zuzenduta. Honela dio helarazi diguten idatziak:

“Soraluzeko langileen ordezkariak, udal plenoak Batasunak ezik, onartutako erabakien aurrean zera esatera gatzkizue:

-Udalak ez ditu negoziatu lan baldintzak, ez langileekin ezta beraien ordezkari garenokin ere. Inposizio honekin, EUDELe mahai sektotialean erakutsi duen moduan, udal plenoak argi erakutsi digu langileekiko duen errespetu eza.

-Onartutako akordioaren edukinak onartezinak dira langileentzat. Lotsagarria iruditzen zaigu soldata igoera (akordioaren arabera %2tik %3rarte izan daitekeena) Euskal Autonomi Elkartearen KPIa(%3,4) baino txikiagoa

izatea.

-Akordio honen oinarrian EUDELe udalera bidalitako akordioa dago, EAJ-PNV, EA, PSOE eta PP alderdi politikoei hartutakoa. Onartezina da udal eta foru administrazioko langileentzat %2 eta %3 bitarteko igoerak akordatzea, kontutan hartuta alderdi horiek beraiek 2001.eko irailean beraien alkate eta zinegotzientzat %20rarteko igoerak akordatu zituztela.

-Langileon baldintzak inposatu beharrean adostu egin behar dira, horretarako benetako negoziazioa izanik bide bakarra.

Ondorioz, berriz eskatzen dizuegu mahai negoziatzailea irekitzeko, ez dugulako onartzen alde bakarretik inposatu nahi diguzuen akordioa. Besterik gabe, zuen erantzunaren zain..”

Udalaren eta Teknikerren arteko hitzarmena



Udaletik jakinarazi digutenez, Udala Tekniker Fundazioarekin harremanetan dabil elkarlanerako proiektu baten aukera aztertzen.

Elkarlanaren helburua Soraluzeko enpresen egoera teknologikoa ezagutu eta hobetzea litzateke. Horretarako “5S Japonesak” izena duen sistema ezartzea litzateke aukeretako bat, produktibitatea eta lan kalitatea hobetzen laguntzen duen sistema da hau. Oraindik ez dago ezer erabakita baina Eibarren egin den saiakerak lortu duen arrakasta ikusita gogo handia dago Udalaren partetik elkarlan hau gauzatzeko. Hitzarmena lortuko balitz Udalak dirulaguntzak emango litzieke parte hartzea nahi luketen herriko enpresei.

Ajenda 21aren barruan galdeketa Soraluzetarrei

Debabarreneko Udalerri Garapenerako Elkartea den Debegesak aurrea daraman Ajenda 21aren barruan, es-

kualdeari dagozkion gaietan herritarren eritzia jasotzeko galdeketa bat egingo da aurki. Galdeketa orriak etxez etxe banatuko dira eta datorren abenduaren Sean batuko dira Plaza Barriari eta inkesta entregatzen duenari aterki bat emango zaio opari (amaitu bitartean).

ELIZpE

hortz klinika

Elizburu, 3 behea
9 4 3 7 5 2 5 6 7
20590 Soraluze

EROSLE

Kontsumo kooperatiba

Tel.: 943 75 13 45

ARRANO tabernia

“Giro euskalduna eta sanua”

ETORRI ETA GOZATU

ELUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

etxera

Telefonia 75 24 09

Lakuesta

Optika

Ikusmen arazoaren frogak eta argibideak

Argazkiak errebelatzen ditugu

Santa Ana, 22 C- behea
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 30 59

Gaztelupeko Hotsak

70 disko eta zerbait gehiago

Orain 6-7 urte Gaztelupe tabernako blues eta poesiako ordu txikien handitasunean gorpuztu zen ilusiozko singel amateurrek bere bidea egin du eta gaur egun Euskal Herriko musika munduko erreferentziarik garrantzitsuen eta berezietako bat izatera heldu da Gaztelupeko Hotsak.

96 an Ñako Goñiren "Los reyes del K.O." blues diskoa atera zutenetik, beste disko eta artista asko pausatu da, Zarra, Ubane, Edu, Pablo, Nagore eta orain Domentx plaentxiarrak entzunarazten duten disko ostatuan, gehienak azpiko tabernan trago bat hartu eta gero. 70 Disko baino gehiago dira dagoeneko, ilusio eta lan asko, urte haue-tan erein dituztenak.

Durangoko lehiok zabaltzeko zor-rian gauden honetan, lan zurrunbiloan tartetxo bat hartuta, pentsamentu argigarriago eta esanguratsuko batzuk eskeini dizkigute musikaren inguruan, herriko prentsa garelako.

Zela doia Durangorako prestake-ta?

Ondo. Azkenengo diskoak aurkezten eta bideratzen gabiz. Azkenengo aurkezpenak egiten gabiz, bi hiru disko falta jakuz.

Zenbagarren aldiz zoizate Duran-gora?

5. Aldiz. Lehenengo aldiz jua ginan, jua ginan mahai erdi bat konpartiduta Euskal Herrian Euskarazekin. Harek zeuken kalendarixo bat eta beste lau gauza eta guk Moraun diskua. Aurten lau mahaikin gare.

Esan leike disketxiak bere tokia egin dabela musika mugimenduan?



Aranzadik jarri dituen seinalizazioak marmolezkoak dira eta ingurunera egokituak.

"Pirateoaren salmentarena multinazionalak eurak sortutako kontu bat da."

Bai. Len gure ingurutik kanpo daren medioetara deittu eta "de parte de quien?" eta... Oin ez, oin tokixa daukagu leku askotan eta atendidu eitten gaittue, "40 Principales"en esaterako. Gure mediuetan beti atendidu gaittue.

Lantoki berri bat egin dozue. Zegaittik erabaki zenduen Plaentxian gelditzia?

Jente asko esan zoskun, aprobetxatu aukera eta jua Donostia edo Bilbora. Pentzatzen geldittu ginan eta hemen ge-

ratzia erabaki genduan. Taldeko danok plaentxiarrak gara eta herrixak asko tiratzen dau. Egia esan, azkenengo urtietan Plazentzia ez dago momentorik gozuenian. Igual garai baten jente gehiago mobitzen zan edo kezka gehiago zegoen. Gaztetxia erreferente bat zan Euskal Herrixan. Batzuetan inguruan ez daukazu babesa emoten dotsun... askotan trabak. Plaentxian beti egon da ohituria, kultura arloko kontuak boluntarismuan gainian lagatzeko eta igual Etxe Nagusiak be eukiko dau hor egitekoren bat baino gehiago.

Zein dira aurten Durangon aurkeztuko dittuzuen disko izarrak?

Dauzkagu lau izen errepikatzen dira-

Goizeko 6:30-etatik
aurrera zabalik!!

Gosarixak eta
pintxo
goxo goxuak !!

Errabal kalea, 15 Tfnoa 943 75 18 34



Limpiezas
industiales

Limpiezas

rejo, S.L.

Rekalde, 30 behea
Tel.: 943 75 25 57
Faxa: 943 75 25 56
20.590 SORALUZE

nak; Mikel Urdangarin, Petti, Bide Ertzean eta Tapia eta Leturia. Tapia eta Leturiaren lehenengoa izango da gurekin, Ruper Ordorikak produzidutako disko bat da. Blues arloan; Arima Beltza (euskerazko blues talde bakarra) eta horretaz gain, beste berri batzuk be sartu dira; Kokein (Eibar), SPLIT (Bilbo), Zea Mays (Bilbo), Igor Arzuaga (Laudioko bakarlari berezia).

“Entzulego euskalduna gero eta erdaldunagoa da, ez bakarrik musikan; gustotan, irakurketetan, erreferentzietan...”

Zela dago euskal merkatua?

Euskal merkatuak arazo bat dauka, txikia dala, txikiagia eta txikiagotzen doiala. Entzulego euskalduna gero eta erdaldunagoa da, ez bakarrik musikan; gustotan, irakurketetan, erreferentzietan... telebistak hori bultzatzen dau. Urtero irailetik aurrera superproduktzio bat dago, itozteko modukua. Hori dana ezin da kontsumidu, ez dago hainbeste eskaera.

E.H.n zein da gehixen saltzen dan musikia?

Errezena saltzeko Euskal Herrixan da; “raka-raka” (heavy punk). Urtietan saldu izan dana da; “raka-raka”. Beharbada kontestu politiko bati lotuta. Eta horrekin batera familia guztiarendako musika.

Deba Bailarakua izanda gustatzen jakuz La Polla eta RIP moduko taldiak baina oindala 20 urteko taldiak, gaur egun musika mota berdina lantzen... eta urtero urtetzen dira disko batzuk talde horien fotokopiak diranak... hor ez dago progresiñorik.

Ze musika mota landu dozue zuek?

Guk landu dogu, kantautoreen musika, triki, pop, blues, jazz... Egia da azkenaldian Rock Musika be ikutu izan

dogula; Kokein, Zea Mays... baina beharbada ez heavya. Ointxe jarriko dogu martxan zigilu berri bat, “Errabal Jazz”. Gero gustatzen jaku poeta, idazle eta musikarien arteko elkarlana eta holako gauzak egitia. Hortaz aparte, dena ez, baina produktiorik gehixena euskeraz izan da. Guzti horrek salmentetan be eragina dauka noski.

Mikel Urdangarinen Espilue mugarri bat izan da Gazteluperen ibilbidian?

Bai, bueno... Bide Ertzean eta Lorelei oso ondo zoiazten... baina Mikelekin lortu genduan arrakasta eta salmenta haundixak. Eta egia da horrek asko laguntzen dabela; ilusiñuan eta poltxikuan. Sorkuntza eta diskoaren izaera aldetik Gaztelupeko Hotsaken marka edo mugarri bat, Apoaren Ederetasuna be izan zan. Hiru lagunen arteko disko bat; idazle bat, musikari bat eta plaentxiako marrazkilari bat elkarrekin.

“Ba ez, ez dogu nahi gehiagoko handitzerik!”

Eta kanpoan badago merkaturik euskaldunendako?

Euskal Herritik kanpo ateratzeko konplikatu da baina poliki poliki ahalgintzen gara musikariei bidea egiten; Bartzelona, Madril. Kataluñan badago errezeptibitate gehiago baina gainontzian... Euskal Herrixan be askotan, musika inglesa bai baina euskerazkoa...

Hortik aparte, Eusko Jaurlaritzak bultzatuta aurten Cannes-eko musika ferixara goiaz, munduko musika ferixarik haundixenetakoa bat da. Guzti horrek lagundu egitten dau.

WWW.hotsak.com ek be lagunduko dau ezta?

Bai, lan asko egin dogu web orri on bat egitten eta nahi izan dogu, alde batetik Gaztelupeko Hotsaken aktualidarearen berriemaile, salmenta bide, notizia emaile (diskuez apartekuak bebai)



Tapia eta Leturian “Hain zuzen” diskoa, 29an Bartzelonan eta 30ian Getxoko Kultur Etxean aurkeztuko dute Pomadarekin.

izatea eta horrez gainera nahi izan dogu literatura arloa jartzea, jazzaren arlo bat eta gauza zabalaguak ere bai. Gero jentia abestixak bajatzeko MP3 formatuan be sartu ditugu abesti batzuk. Gabonetarako guztiz amaituta egongo da.

Pirateuan inguruan ze eritzi daukazue?

Bniloak urten zebanetik beti grabatu izan da. Baina gu ez gare multinazional haundi negartien bando berean. Pirateuaren salmentarena multinazionalak eurak sortutako kontu bat da. Guk daukagun antidotorik onena, diskuen formatua da; kartoizko Diji Packa, argazkiekin eta ebastien letrekin...

Aurrera begira zer?

Beti egin dogu ahalegin haundixa aurrera egiteko eta oin, teknologia berrixekin eta abar lengo ahalegin berdininakin gehixao egiten dogu. Azkenengo urtietan asko hazi gara eta igual heldu da ordua pixkat gelditze eta galdetzeko; gehiago haunditzea nahi dogu? Ba ez, ez dogu nahi! Nahixago dogu txiki jarraitzia eta modu familiar baten lan egitia, talde estu bat izan... uste dogu aberasgarrixagua izango dala ze azken baten, aberastu ez gara aberastu bihar haundittuta be.

FER. S.A. Industriak

Eskulanetarako tresnak

Industrialadea, 17 - 20590 Soraluze
Tlfonoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza Jabe Elkarteak Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk. 20590 Soraluze
Tlfonoa: 943 75 17 82 GIPUZKOA

Bergarako eta Tolosako Orfeoien kontzertua domekan honetan



Santa Zezilia dela eta, Musika Eskolak eta Abesbatzak emanaldi ezberdinak eskeiniko dituzte herrian.

Aurten gainera, musika eskeintza

borobiltzeko Bergarako Gabero eta Tolosako Hodei Ertz orfeoiek kontzertu eskeiniko dute igandean elizan.

Musika eskeintza ugaria beraz.



Euripeko azoka

Joan zen urtean hotza izan bazen protagonista aurten euria. Hala, euripean egin behar izan zen VII. Gaztañerre Azoka. Eguraldi txarra izan arren jende mordoak hurbildu zen azoka ingurura eta gogoz erosi zituen baserriarren produktuak (izan zen baserriko 25 ogi batera erosi zituenik ere). Baserriko posturik onenaren saria Lezarri baserriari eman zioten, bigarrena Arrietari eta hirugarrena Arizaga baserrikoiei. Sari banaketa egin ostean, azoka amintzat eman eta ganadua kamioietara sartzen hasi zirenean, txahal batek hesi artetik ihes egin eta azoka lekuari buelta dena eman zion korrika, arik eta goiz osoan lotuta egon zen tokira bueltatu zen arte. Batek baino gehiagok bizkor mugitu zituen hankak. Arratsalde partean, giro ederra izan zen herriko taberna eta kaleetan.

Astehenean, Gaztañerre Egunean, asko izan ziren gaztaina erreak jan eta afaria egiteko aprobetxatu zutenak. Herriko tabernetan, Estazioko Bodegan, San Andresko Elkartean eta Sorluzeko Euskalgintzak AEKko ikasleekin batera antolatu zuten afarian eta beste askotan, izan ziren gaztaina erre eta egosiak edari goxoz dastatu zituztenak.

29 Partehartzaile Kontrargiko Rallyan

Joan zen igandean egin zen XIV. Kontrargi Argazki Rallya. 29 argazkilarik aurkeztu ziren guztira, Eibar, Ermua, Bergara, Azpeltia eta inguruko beste herri batzuetatik etorritakoak. Zubiak, futbol zelaia eta kontrargia izan ziren argazki-gaiak. Sari banaketa eta argazkien proiektzioa, abenduaren 14an egingo da, 13:00ean polikiroldegiko erakusketa gelan. Epaimahaikoa Eibarko argazki taldekoek osatuko dute.

Blascoren pinturak Topalekun



Maria Luisa Blasco plaentxiar margolariak, Eibarko Arrate Kultura Elkarteak Topalekun antolatutako margolan erakusketa batean parte hartzen du egunotan. Larrañaga, Kareaga, Serrano moduko margolari beteranoen ondoan dago Blascok Donostiako Maria Cristina zubian neska mutiko batzuk neguko edurretan jolasean irudikatzen dituen margolan ederra. Erakusketa zabalik izango da azaroaren 24rarte, jaiegunetan goiz eta arratsaldez.

Itxaropenako karta txapelketa



Musean: Jesus eta Romero txapeldun. Urtiaga eta Losada txapeldunorde.



Trukean: Ventura eta Alfonso txapeldun. Paco eta Jesus txapeldunorde.



Briskan: Dorotea eta Emiliana txapeldun. Eustasia eta Ma Luisa txapeldunorde.



Tutean: Julio eta Avelino txapeldun eta Isidro eta Antonio txapeldunorde.

Oihana aizpuru

“Tabakua erretzia ilusiño faltsua da”

Sei orduko hitzaldi bat entzun eta tabakoa erretzeari lagatzea; hori da The Greener Grass konpainiakoeek eskeintzen dutena. Oihanak, beste 15 herritarrekin batera, proba egitea erabaki zuen hillaren 11an. Hitzaldiaren kostua 250 eurotakoan izan arren (125ekoa Udalaren dirulaguntzari esker), konpainiakoeek garantizatzen dute dirua bueltatuko zaiela saioaren ostean erretzen jarraitzen duten haiei. Profesional zintzo edo ferriako berrikerari; zer ote dira? Ia Oihanak ezer argitzen digun.

Oihana, zenbat egunian ez dozu erre?

Bederatzi egunian. Lehenago be, haurdun egon naizenian laga izan dot denboraldi batzutan, baiña azkenian beti jarraitu izan dot. Saiatu naiz nikotinadun txikiekin, irakurri neban Allen Carren liburua (ingeles honen metodoan oinarritzen da hitzaldi hau ere), baiña ezebez.

Eta oin ez dakazu erretzeko gogorik?

Ez, oin momentuan ez, baiña eukitzen dot. Ez dakit gogua dan edo zer dan. 17 urtian ohitura batzuk hartzen dituzu eta gero gaitza da horrek kentzia. Bazkalostia heltzen da, kafia hartu eta...eta oin?

Gogorra egin jata, baiña uste dot nerekin zeren batzueri gogorragua egingo jakuela. Nik 10-12 zigarro erretzen nituan, eta han baziran egunian 3 pakete erretzen zittuenak. Han izan giñan 16 lagunetatik ixa iñok ez dau erre, baiña badakit batzuk gaizki pasatzen dabela, eta batek zigarro bat erre dabela bebai.

Eta horri dirua bueltatu dotse?

Hor tranpatxua dago. Erretzen badozu, beste bi errefortzu saio hartzera derrigortzen zaittue, bestela ez dotsue dirua bueltatzen. Batzuk eskatu dogu



Oihana Aizpuru

errefortzu saio hori oin hartzia, seguridadia hartzeko, eta igual abenduan etorriko dirala esan doskue.

Borondatia ez da nahikua tabakua lagatzeko?

Ez da sistemarik onena. Hitzaldixan esan zan moduan, borondatiakin gure buruari esaten dotsagu: erretzia nahi dot baiña ezin dot erre. Eta metodo honekin zera lortu bihar da pentsatzia: erre neike baiña ez dot nahi.

Eta zein da metodo honen sekretua?

Ez dago sekretorik. Esaten dotsue zuk badakizuzen gauzak, normalian ez dittuzunak pentsatzen, begixak zabaltzen dotsuez. 7 orduan hainbeste bidar esaten dotsuez egi horrek, azkenian ikutu egitten zaittuela. Erretzia ilusiño faltsua dala konturatzen zara. Erre egingo dot eta hobeto egongo naiz, hori da pentsatzen doguna, baiña hori ez da egi-

xa. Dana psikologikua da. Lehenengo 3-5 egunian mono fisikua badago, gorputzak nikotinia eskatzen dau eta, baiña gero dana psikologikua da.

Bateronbategen pentsau leike honen dirala...

Bai, nere gizonak adibidez. “Horrek txorradak dira, egin bihar dozuna da laga eta kitted!” “Zegaittik ez dabe kobratzen bi hillabete pasau ostian?” esaten zoztan. Baiña honek egitten dabena da begixak zabaldu erain, egi batzuk esanda. Zuk mapa bat dakazu buruan eta laguntzen dotsue mapa hori aldatzen.

Hori be laguntza psikologiko bat da, zuk bakarrrik ezin badotsazu erretziari laga.

Ez dakit profesional onak diran, baiña %70 ak laga egitten dotsa erretziari.

Jon Basauri

Juan Mari
Arraindegia

Eguneroko
arraina
eta konjelatuak

Merkatu Plaza
20590 Soralueze
Tfnoa 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69



Electricidad LAU, C.B.


MONTAJES - INSTALACIONES INDUSTRIALES
BOBINADOS - AUTOMATISMOS - REPARACIONES

Barrio Olea, 3 bajo
Tel. 75 12 34

20950 SORALUZE

Atletismoa

Atxa Memoriala abenduaren 1ean egingo da ohiko ibilbidearekin



Atxa Memorialaren 21. edizioa, datorren abenduaren batean egingo da. Obra eta lanengatik zalantzan izan badira ere, Udaletxean hasi Ezozi Bidetik segi eta Estaziotik buelta Olatik behera berriz zubira heldu arteko ohiko ibilbidea izango da aurtengoan ere.

Bestalde, joan zen urtean lasterketako garaile izan zen Juan Alberdi korrikalariak ere parte hartuko du aurten ere eta joan zen urtean lortutako 26 minutuko denbora hobetzen saiatuko da. Bestalde, korrikalari talde batek jakinarazi digunez, lasterketaren ostean bazkaria egiteko asmoa dago eta kartelak jarriko dira tabernetan jendeak izena eman dezan.

Karakate igoeran Elgoibartarra garaile



Joan zen igandean, Elgoibarko Fuen Plazatik Karakateko gainera egin den lasterketaren edizio berri egin zen. Aurtengo edizioan ez du plaentxiar batek ere parte hartu baina esan behar da, partehartzaile aldetik inoiz baino partehartze handiagoa izan dela; 20 lasterkari. Jose Mari Fernandez Suso izan zen aurtengo igoerako garailea. Elgoibartarrak 32:04 ko denbora egin zuen eta bigarren izan zen Unai Bengoa Eibartarrak baino 4 segundu gutxiago behar izan zituen igoera egiteko. Emakumeetan, Rosa Lasagabaster Eskoriatzarra izan zen partehartzaile bakarra eta 42:14 ko denbora eginaz amaitu zuen frogan.

Pelota

Soraluzetarrak Gipuzkoako Txapelketan

Aitor Atxotegi. Azken bi partiduetan galdu egin ditu Tolosa eta Bergaren aurka, hurrengo partidua Hernanin aurka jokatu du.

Jon Varela. Jokatu du azken partiduan Azpeitin aurka galdu zuen, hurrengo Azkoitin aurka jokatu du.

Iñaki Jauregi. Hiru aste eskuko minekin pasa ondoren joan zen astean Bidaniaren aurka jokatu zuen eta 22 - 12 galdu zuen.

Aritz Laskurain. Eskuko arazok direla eta azken bi asteetan ez du partidurik jokatu.

Eskola kirola

Azaroak 23-an Eskola Kiroleko denboraldi berriak hasera emango dio. Iaz bezala neska-mutikoez kirol ezberdinak probatzeko aukera izango dute; saskibaloia, pelota, eskubaloia, atletismoa eta futbola. Taldeek hiru aste daramatzate entrenatzen eta neska-mutikoak eta entrenatzaileak desiatzen ari dira lehen partiduetan jokatzeko.

Futbola

Pedruskoren aurka garaipen garrantzitsua

Soraluzeko talde nagusiak etxean jokaturiko azken partiduan garaipen garrantzitsua lortu zuen Pedrusko talde elgoibartarraren aurka. Sorak duela bi aste Idiazabal sailkapeneko azken sailkatuaren aurka galdu zuen eta talde indartsu honek aurkako garaipena oso ongi etorri zaie sailkapeneko bederatzigarren postua mantentzeko. Beste bi taldeei ordea gauzak ez zaizkie oso ondo joan jokatu du azken partiduan biek porrotak jasan bait dituzte.

Azken asteko emaitzak:

REGIONALA:
Idiazabal 1- SORA 0
SORA 2 - Pedrusko 1

JUBENILA:
SORA 0 - Elgoibar 0
Aurrera Ondarroa 4 - SORA 1

KADETEA:
SORA 1 - Eibartarrak A 3
Ikasberri 4 - SORA 0

Plaentxiarrak Behobian

Plaentxiar batzuk aurten ere Gipuzkoan ospatzen den proba ospetsuan hartu dute parte, hona hemen beraien denborak:

Denbora.	
Iagoba Zubiaurre Ezenarro	1:28:04
Javier Bruña Yudego	1:28:26
Luis Ariznabarreta Portales	1:45:06
Gorka Oregi Unamuno	1:50:36
Jose Luis Lasa Bandaormaetxea	1:52:35
Ane Aristi Maiztegi	1:59:45

Xuban Catalan

Alberto Tello

“Pertsona eskuzabala, sensiblia ta jendiakin errez erlazionatzekua naiz.”

Urte asko dira Argentinatik etorri zala ta txiki txikitxatik dauka futbolerako zaletasuna. Gaur egun Soran jokatzen daberen Elgoibarko taldian be arittu da. Ia ba koka-kola zale hau urte askuan ikusi geinken futbolian jokatzen.

Izen abizenak, edadia ta lanbidia.

Carlos Alberto Tello, 20 urte ta kofradoria.

Zeintzuk dira zure zaletasunak?

Futbola ta musikia.

Musika taldia, tokixa animalixa ta zenbakixa.

Phill Collins, Donostia, lehoia ta 10a, Pele ta Maradona moduan.

Hiru desio

Gauzak ondo juatia, osasuna eukitzia ta Argentinako egoeria hobetzia.

Bapo geratzeko moduko bazkarixa.

Lehenengo kroketak, gero txuletia patata prejiduekin ta edateko koka-kolia.

Zelakua da Alberto Tello?

Pertsona eskuzabala, sensiblia ta jendiakin errez erlazionatzekua naiz.

Zure bertuterik haundixena?

Atsegina izatia.

Ta zure akatsik txarrena?

Jeloskorregixa naizela.

Ederrena ala aberatsena?

Ederrena, dirua baino gauza inportantiauak be badare ta.

Ezin dozu jasan...

Jateko orduan jendiak zaratak etaratzia.

Zer eingo zenduke

1.000.000 eurokin?

Etxe bat erosi ta gero Argentinara juan ta nere senidieri laguntzen ahaleginduko nintzake, bizitza hobe bat emon.

Oin momentuan Soran jokatzen dozu, gustora al zare bertan?

Bai oso gustora. Emaitzak onak diranian pozik ibiltzen zara. Sailkapenian erdi inguruan gare ta atzo (zapatuan) bigarreneri irabazi gontsen.

Bertso Begiz

*Argentinatik etorri zinan
txiki txikixa zinala,
ta futbolian jo ta egurra
egin dozu eginala.
Ia jeloskorrena
ta ia ederrena,
jatorra ta atsegina,
Argentinari gure partetik
besarkadarik haundina.*

Etxebarri

(Doinua: Iparragirre abila dela)



Alberto Tello

“Ederrena izatia nahi neuke, dirua baino gauza inportantiauak badare ta!”

Gustoko futbol taldia ta jokalarixa.

Barça ta Saviola. Argentinatik hona etorri nintzanian sailkapenian lehenengua zein zeuan galdetu ta Barça zeuala

erantzun zostenian bertako ein nintzan.

Futbolian gertautako anekdotaren bat.

Behin mutil batek nerekin batera ein zeban salto baloiari buruakin emoteko ta orduan takuas sartu zostazen bizkarrarian. Gero keju ein zan neri ezebe ein ez zoztala esanaz.

Enara Agirre

Etxabe harategia

Euskal txahalkia - Bildotsa

Merkatu plaza, 6-7 postuak
Tlfnoa: 943752375

Instalaciones Kalebarren S.L.



GAS INSTALAKUNTZAK
ETA PROIEKTUAK
KALEFAKZIOA ETA AIRE EGOKITUA
ITURGINTZA OROKORREAN

20590 SORALUZE TEL. / FAXA: 943 75 23 07 ESKUKO TEL.: 608 67 40 70 / 607 40 37 92
48017 DEUSTU TEL.: 944 75 99 60 POSTA ELEKTRONIKOA: KALEBARREN@INICIA.ES

Argazki zaharra



Arma praktikak 1955ian

Kañoi fabrikako langiliak agertzen dira argazki hone-tan. Espainiako gobernuak bialdutako maisuekin praktikak egiten ziharduen. Iruditako “karrua” kañoi fabrikan bertan egindakua zan. Orduan oindio, sasoi onian zegan armagintza. Krisi garaixak beranduago etorri ziran.

Egoitz Unamuno

Barre-barra!!!

Nola esaten da arabieraz “Supositorio”a?
Zuloko pilula mardula



Ferminak egun gaiztoa du. Ohera sartu eta argia itzalitakoan zera esan dio Fermi:
-Fermin oroitzen zara zein zoriontsu ginen duela berrogei urte?
-Baina Fermi!!!guk duela berrogei urte ez genuen elkar eza-gutzen!!!!
-Horregatik ba!!!!

Kike Amonarriz

Lehiaketa

Ekialdeko mamua


Egilea: Jon Arretxe

Egin dudana azken bidaia luzearen kronika da, iazko udazkenean egin nuena, Istanbultik Teheranera bizikletaz, Turkia eta Iran zeharkatuz, ahalik eta era txukunenean kontaturik, betiere errealitatea errespetatuz, fikziorik sartu gabe.

Galdera: Zein da Turkiako hiriburua?

“Ekialdeko mamua”-ren BI ALE DITUZU ZAIN

Aurreko lehiaketako irabazlea: Ana Rosa Laskurain
Erantzuna: Irigoien



Lonbide taberna

*Pintxoak
Ardoak, kafeak eta likoreak*


**Errabal kalea, 9
Tfnoa 943 75 14 07**



Kiru Muntaiak

**Blas Elizburu Kortabarria
Sukalde, enpotratu
eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.**

Errekaldia, 30
Tfnoa 943 75 13 12
Eskuko tfnoa 670 05 18 20



Ugaraxo

Gaztainerre azoka



Badakizue herriko azoka ospatzen den bezperan, eskolan ere azoka txiki bat antolatzen dugula.

Ostiral goizean, 2. ziklokoak erosketak egitera joan ginan. Eskolako sarrera apaindu

ondoren, produktuak mahai gainetan jarri genituen. Ondoren txikienek jenero guztiei izena ipini zieten.

Arratsaldean Iturbe-berriko Jesusak, lehenago artilea nola lantzen zen erakustera etorri zen.

Hori da sasoia hori!

Azkenik lau eta erdietatik aurrera, 3. ziklokoek goizean erositako produktuak birsaldu zituzten.



Donostiako irteera

Urriaren 18an, Donostiara joan ginen 3 eta 4. mailakoak.

Lehendabizi Miramona joan ginen. Bertan, izpiluekin jolastu, laberinto batean sartu... eta fosilen tailerlean, fosilak nola topatzen ziren ikasi genuen. Bukatzean fosil bat eman ziguten bakoitzari. Handik irtendakoan, Aquariumen ondoan dagoen Paseo Berrian bazkaldu genuen.

Arratsaldean gure harri-durarako, Pakito izurdea buelta asko ematen ikusi genuen. Urtetzen zen bakoitzean denok Pakiitoooo! deitzen genion.

Ondoren, Aquarium-ean



egon ginen eta bertan, arrantza tailerra egin genuen.

Bertako irakasleak zulo txiki-txikiak duten sareekin ezin zela arrantzatu erakutsi zigun (mota guztietako

animaliak harrapatzen dituztelako). Handik irteterakoan merienda jan eta etxera bueltatu ginen.

Den-dena gustatu zitzaigun. Oso ondo pasatu genuen.

GURASO ETA HAURREN ARTEKO TOPAKETAK

Urriak 25 ean ostiral arratsaldean frontoian, gurasoak antolatutako jaialdia ospatu zen.

Bertan jende asko bildu ginen eta egia esan behar badizuegu... primeran pasatu genduan. Sei eta erdietan izan zen jaialdia. Joko asko egon ziren: saku karrerak, soka tira, aroak botatzeko jokua, kaskara batzea... Gero familia bakoitzak ekarritako janaria zabaldu zuten eta merendola hasi zen. Jendeak jan eta edan egin zuen. Partaide batzuen artean kristoneko katxondeoa egon zen.



Dagoeneko pentsatuta al dituzue gabonetan eskatu behar dituzuen opariak?

NEREA

Barbi panpinak nahi ditut eta gauza gehiago oraindik pentsatuko dut



OSAMA

Bizikleta eta raketa.



IÑIGO

Bonberoko kamioiak eta karrerak egiteko kotxea.



MAIALEN

Panpinak.



Ikusi Makusi Zein Ikusi? _____



Zein da alboko argazkian agertzen dan emakumia ?

Zein dan baldin badakizu,
DEITU

943 75 13 04 (Pil Pilean) telefonora
eta emon zure erantzuna. Emon zure izen abizen eta telefonua.

Asmatu ezkerro **liburu edar bat** irabaziko ahal izango dozu.

Aurreko aleko irabazliak:

Aitor Arruabarrena eta Beñat Sierra
Erantzuna: Junkal Ariznabarreta
Saria IRATXO dendan eskatu

Esazu...(amodiozko, zorion agurrezko..... mezuak)

Ikastolan examina eta etxeke lan gutxiago egitea eta andreñuak ondo portatzia. (Katariñe). Polikiroldegia konpondu eta politagoa egin eta eskolako patioa ere mesedez. (Ane, Irene, Nekane, Leire, Maitane). Eskerrikasko Porturi hain ondo



entrenatziagatik eta Unairi bebai (Oier A., Beñat S., Josu A.). Zorionak Lore! (Jone, Ohiane, Miren, Ixone eta Jon). Ander A. onena futbolian (Ander A.). Sorluzeko neska guapendako morreo bat: Nekane, Leire, Sheila, Irene eta Aneri. (5. mailako mutilak).

Denborapasak


Topatu azokan ikusitako 6 produktuen izenak.
Erantzunak hauetariko hitz batzuek dira.

Letxuga	Berenjena	Azalorea
Porrua	Piperra	Aza
Txikoria	Lekak	Kalabaza

A	Z	T	U	O	L	R	I	P
Z	I	K	I	L	L	E	K	O
A	R	R	E	P	I	P	G	R
S	E	G	I	A	R	G	I	R
K	A	L	A	B	A	Z	A	U
S	F	T	G	O	A	E	G	A
C	T	X	I	K	O	R	I	A
A	N	E	J	N	E	R	E	B
P	O	R	R	I	L	A	T	O

Marrazki Zenbakiduna

Zenbakiz zenbaki marra egin eta irudi eder bat azalduko zaizu.



Txistiak

☘ Kanibal bat hegazkinean
doa eta esaten dio azafatak :

-Oraintxe ekarriko dizut
menua .

Eta erantzuten dio kanibalak :

- Ez , nahiago dut bidaiarien
zerrenda ikustea .

☘ Behin Jaimito bizikletaz
zebilen eliza ondoan.

Bapatean apaizak esan zion :

- Jaimito etorri mezetara

- Eta bizikleta?

- Espiritu Santuak zainduko
dizu.

- Jamito has zaitez

errezatzen. –esan zion apaizak.

- Aitarenean ,semearen izenean
amen

- Eta Espiritu Santua? –
galdetzen dio apaizak.

- Bizikleta zaintzen!

☘ Egun batean Jaimitori
loteria tokatu zitzaion.

Hurrengo goizean eskolara joan
zenean maixuak galdetu zion:

- Jaimito hainbeste dirukin zer
erosi behar duzu?

- Ba nik beste ipurdi bat hau
zulatuta daukatelako.

Larunbatetan
DOAN
EGUNKARIAREKIN



Gaztetxoenen egunkaria



Komikiak

Denbora-pasak

Posterrak

Erreportaiak

Ipuinak

Eskulanak...



ORAIN 16 ORRI
KOLOREETAN



Astiaaldian jolastuz ikasteko



Urriaren 26tik aurrera, larunbat eta igandeetan
euskarazko eta ingelesezko jokoak !!



DOMINO JOKOA
Lanbideak
Hiztegi jokoak:
hitzak euskaraz eta
ingelesez lantzeko.



LETRA JOKOA
Hizkuntza jokoak:
letrak euskaraz
eta ingelesez lantzeko.



**BIKOTEEN
JOKOA**
Hitzak eta marrazkiak
binaka elkartzeko.



**ZENBAKI
JOKOA**
Zenbakiak euskaraz
eta ingelesez lantzeko.

*Kupoia, asteburu oro, ostiraletik igandera publikatuko da.



+ kupoia* + 4,4 €

Egunkaria

300 300 300 300

300 300 300 300

300 300 300 300

300 300 300 300

300 300 300 300

300 300 300 300

300 300 300 300

300 300 300 300

300

baietz !!



Peugeot 307. Ez da zenbaki bat bakarrik
2002 urteko autoa da Europan



Ze puntutaraino izan dezakezu konfidantza auto batekin? Punturik goreneneraino. Batu eta irabazi egin dugu. 6 Airbag (aurreko inteligente 2, alboko bi eta kortina moduko sabaiko bi, aurreko eta atzeko bidaiariendako) eta ABSez gainera, zure eskura jartzen ditugu segurtasuneko elementurik aurreratuenak:

EVA (larritasunezko frenatuendako laguntza), REF (frenatuaren banaketa elektronikoa), ECS (garondoko lesioen aurkako babes sistema), oiñ-jartzeko aktiboa,

Norabide habe atzeragarria eta ESP (orekaren kontrol dinamikoa). Xehetasun eta kontrol osoa.

ETORMOBIL
Otaola etorbidea 22
Tel.: 943 20 09 66
EIBAR

307 
PEUGEOT